

Barakaldoko Udaleko Gazteria Saileko Zerbitzuak, nerabeentzako aisia hezitzaile eta partaidetzarako zerbitzuak eta gazteei informazioa eta laguntza emateko zerbitzuak ondoko helburu nagusiak dituzte: Barakaldoko gazteen bizi-kalitatea hobetzea, gazteei hazkuntzako eta emantzipatzeko prozesuan laguntzea, eta gazteek udalerrian herritar aktibo gisa parte har dezatela erraztea.

Helburu horiek garatzeko, kalitatea kudeatzeko sistema zabaldu dugu. Horri esker, etengabe eskainitako zerbitzuak hobetzeko konpromisoa mantenduko dugu, bezeroen, erabiltzaileen, komunitatearen eta zerbitzu horiei aplikatu dakiekeen arauen eta legeriaren baldintzak beteko ditugu, eta etengabe zerbitzuen hartzaileei entzungo diegu eta haiekin harremanetan egongo gara.

Kalitate sistema hori mantentzeak erakusten du Barakaldoko Udalak kudeaketan kalitatearen aldeko apustua egiten duela, sistemaren zuzendaritza estrategikoa bultzatzen duela eta etengabe inguruko testuingurura egokitzen ari dela.

Barakaldoko Udaleko Gazteria Saileko zerbitzuetako Kalitate Politika ondoko printzipioetan oinarritzen da:

- Bezeroak dira gure izatearen arrazoia: Zerbitzuetako erabiltzaileak, haien eskaerak eta iritziak entzutea eta egiturak sortzea zerbitzuak eta jarduerak definitzean zuzenean parte har dezaten.
- Eraginkortasuna eta efikazia ematen diren programa eta zerbitzu bakoitzean.
- Emandako zerbitzuetan profesionaltasuna egotea. Zerbitzuetako langileak dira bere baliabiderik baliotsuena. Beraz, langileak prestatu eta birziklatu ez ezik, zerbitzu eta proiektuak etengabe hobetzearekiko konpromisoa izatea ere funtsezkoa da.

Kultura, Hezkuntza, Euskara, Gazteria eta Droga-menpekotasunen Arloko  
zinegotzi ordezkaria  
Nerea Cantero Gurtubai

